

Lehen kapitulua

Oinarrizko zenbait kontzeptu: gramatika eta gramatika-kategoriak

© Xabier Artiagoitia

1.2 bertsioa

xabier.artiagoitia@ehu.es

1. Gramatikaz zer ulertzen dugun 1

2. Gramatika-kategoriak 4

2.1. Aurkezpen txiki bat 4

2.2. Gramatika-kategoriez jarduteko zailtasunak 6

2.3. Ez ditzagun egitura (kategoria, islapena, sintagma) eta funtzioa nahasi 8

3. Terminologia ikasten: kategorien sailkapen orokorrak 13

3.1. *Kategoria aldakorrak eta aldaezinak* 13

3.2. *Kategoria irekiak eta kategoria itxiak* 15

3.3. *Kategoria beteak eta kategoria hutsak* 16

3.4. *Kategoria nagusiak edo lexikoak eta txikiak edo funtzionalak* 16

4. Kategoriak zedarritzatzeko irizpideak 17

4.1. *Irizpide semantikoak* 18

4.2. *Irizpide morfologikoak* 20

4.3. *Irizpide (lexiko-)sintaktikoak* 22

5. Gramatika kategoriak euskaraz 27

Lehen eranskina: lehen begiratua morfologia irizpideei 29

Bigarren eranskina: lehen begiratua irizpide lexiko-sintaktikoei 32

1. Gramatikaz zer ulertzen dugun

Liburu honetan *euskal gramatika* dugu aztergai. Baina zer da gramatika? Edo, hobeto esanda, gramatikaren zein ikuspegi hartuko dugu hemen? Hasieratik esango dizut, irakurle, hautu jakin bat egingo dudala: niretzat, gramatika gauza bi da, elkarren osagarri diren gauza bi. Batetik, hiztun (idealizatu) batek berez eta oharkabean daukan *euskararen jakintza* da gramatika. Bestetik, eta modu anbiguoan, jakintza horren berri emateko egiten den azalpenari berari ere esango diot *gramatika*. Alegia, euskaldun izate hutsagatik, euskaraz jakite hutsagatik, hiztunak bere buruan edo gogoan lortu duen egoera horri, jakintza horri, esaten diot gramatika, euskarazko

perpauzak eta hitzak ulertu eta esateko duen gaitasun horri. Eta, aldi berean, hizkuntzaren ikertzaileak gaitasun hori deskribatzeko eta azaltzeko egiten duen teoria-saioari ere esango diot gramatika.

Aurreko ikuspegi hau, ezer bada, mentalista (hizkuntza buruaren gaitasuntzat jotzen duelako) eta deskribatzailea (hiztunak berez duen jakintza xehatu, esplizitatu nahi duelako) da; eta erabat urruntzen da, esaterako, ikuspegi arau-emailetik, hizkuntzak prestigioagatik edo estetikagatik edo dena delako arrazoigatik eduki beharko lukeen forma edo egitura proposatzetik. Adibide pare batekin elkar ulertuko dugulakoan nago. Hartu honako adibide pare:

- (1) a. Jonek euskaltegira deitu du.
b. Jon euskaltegira deitu da.

Euskaraz bata gramatikala da, bestea ez; edozein euskaldunek daki hori, hori zergatik den horrela azaltzen ez badaki ere. Bigarren (=1b) perpausa gramatikala ez dela adierazteko, eskuarki izartxo bat jartzen dugu aurretik¹. Hartara:

- (1') a. Jonek euskaltegira deitu du.
b. * Jon euskaltegira deitu da.

Horrelako adibideen arteko kontrastearen zergatia bilatzea (zer-nolako aditzak dauden euskaraz, nolako ezaugarriak dauzkan bakoitzak, zein laguntzailerekin elkartu daitekeen eta abar xehatzea) da gramatikariaren lana. Eginkizun honi begira, esango didazu, irakurle, (1a) adibidearen ildotik beste bi hauek ikusten ditugula:

- (2) a. Jonek Miren deitu du.
b. Jonek Mireni deitu dio.

Eta galdetu ere egin lezake baten batek ea zein den egokiagoa eta zein okerragoa edo gaitzestekoa. Bada, hemen hartzen dugun ikuspegiak ez du honetaz zer esanik: biak

¹ Izartxoa hizkuntzalaritza historikoan ere erabiltzen da, beste zentzu batekin: hitz, atzizki edo dena delakoa garai bateko balizko forma dela adierazi nahi denean. Esaterako: ikusirik *ardo* hitzak *arno*, *ardao*, *ardau*, *ardão* (bokal sudurkari batekin) aldaerak dituela (edo izan dituela), eta hitz elkarketan eta eratorpenean *ardan-degi* eta *ardan-koi* bezalakoak aurkitzen ditugula, uste da garai bateko euskaran gaurko *ardo* *ardano izango zela; izartxoak egiaztatu gabe dagoen ustezko forma dela adierazten du.

dira gramatikalak hiztun arruntek biak onartzen dituztelako. Gure (gramatkarion) lana neurri batean (1a) eta (1b) adibideen arteko kontrastea azaltzea da, bai eta (2)-n aukera bi zergatik dauden argitzea ere. Baina inola ere ez (2)-ko aukeren artean bat *hautatzea*. Hori zilegi izan daiteke eredu bakar baten beharra aldakarrikatzen duten hiztunentzat, baina ez da inola ere gramatikariaren lana, ez behintzat hiztunaren gaitasunaren eta berezko jakintzaren berri eman nahi duen gramatikariaren lana.

Hemen hartzen dugun gramatikaren ikuspegia, beraz, mentalista da, hiztunak barneratuta daukan jakintzari begiratzen diona, eta ez da arau-emailea. Ez dugu aztertuko *nola* hitz egin edo idatzi behar den, (2)-ko zein bertsio erabili behar den, edo hobetsi behar den, eta antzekorik.

Gramatika, hiztunak berez daukan jakintzari esaten badiogu, litekeena da hiztun beste gramatika egotea; hala ere, arazo hau gaindituz, askotan gramatikariak hiztun ideal edo idealizatu bat hartzen du kontuan, ez hiztun zehatz bat. Praktikan, egia esan, euskaldunak *oro har* harturik jotzen dute bai gramatikariak eta bai gramatikariak ez direnek ere, hiztunen erkidegoa nahiko homogenea balitz bezala: “euskarari buruz” eta “bere gramatikaz” orokorrean hitz egiten dugu, barra-barra hitz egin ere. Beste era batera esanda: (1b) perpausaren estatua erabakitzeke ez daukagu zertan makroinkesta bat egin Euskal Herriko hiri, herri, auzo eta txoko guztietan barrena: hor nahikoa dugu geure intuizioetan oinarritzea datua zein den jakiteko (eta datu horretatik abiatuta geure deskribapen eta azalpena egiten ahalegintzeko).

Era berean, hiztunen inguruko idealizazio horri esker esaten dugu, adibidez, euskarak aditz iragankorren subjektuak atzizki berezi batez (ergatiboa) markatzen dituela:

- (3) *NOR-NORK aditz iragankorra*
Anak Egunkaria irakurtzen du
- (4) *NOR aditz iragangaitza*
a. Ana mendira joan da
b. *Anak mendira joan {da/du}

Hau da, hiztun idealizatu bat, eta ez hiztun jakin bat, hartzeak posible egiten du *euskarari buruz* azalpen interesgarri bat ematea, kalean zehar (4b) edo antzekorik esaten duen hiztunik ote dagoen galdezka ibili gabe. Beraz, ergatiboaren inguruko

orokorpena ez dagokio liburu honen egileari soilik, eta zentzu zabal batean hartuta euskal gramatikaren deskribapenaren zatitzat jo daiteke, euskaraz dakien hiztun baten gaitasuna deskribatu nahi duen edozein lan-saioren osagaitzat

Hiztunen arteko ezberdintasunek badute lekurik, jakina, baina bakoitzaren barne jakintza horren isla diren neurrian dira interesgarriak ezberdintasunok. Adibide pare bat ipintzearren, gure artean ezagunak diren kontu bi aipatuko ditut:

- (5) a. Zer irakurtzen du Anak?
 b. % Zer du Anak irakurtzen? (non % = *hiztun batzuek soilik onartua* den)
- (6) a. % Zuzen jokatu dugu.
 b. % Zuzenki jokatu gara.
 [baita *jolastu, borrokatu, bazkaldu, afaldu*,... aditzak ere]

Hiztun multzo zabal batek (5a) adibidea bai, baina ez du (5b) adibidea bezalakorik onartzen; (6)-k, berriz, erakusten du hiztun batzuek aditz jakin batzuk NOR sailean sartzen dituzten bitartean, beste batzuek NOR-NORK sailean sartzen dituztela, hizkeraren arabera. Datu hauek, jakina, ez dira lortu hiztunez hiztun galderak eginda; datuok, beren laburrean, hiztun (idealizatu) mota biren arteko erkaketa egiten dute. Tankera honetako ezberdintasunek agerian uzten dute *euskararen barruan* hizkera bat baino gehiago, *gramatika* bat baino gehiago-edo egon daitezkeela aditzaren jokaerari buruz; beraz kasualitatearen ondorio barik arau gramatikal zehatzen ondorio (eta neurri batean gaitasun biren ondorio) diren ezberdintasun hauen berri ere eman beharko luke gramatikariak.

2. Gramatika-kategoriak

2.1. Aurkezpen txiki bat

Liburu honetan, beraz, gramatika (arestian azaldutako zentzuan) eta gramatika-kategoriak (edo kategoria gramatikalak) banan-banan aurkeztu eta aztertuko ditugu. Zertaz ari gara *gramatika-kategoriak* terminoaren bidez? Hona hemen gramatika-kategorien definizio arrunt eta (hizkuntzalari gehientzat) onargarri bat:

- (7) Gramatika-kategoriatzat haxe ulertzen dugu: gramatika ezaugarriak konpartitzen dituen espresio edo hitz taldea
(Radford 1997: 29)

Alegia, *askatasun*, *lagun*, *esku izenak* direla diogunean, seguru asko aditzera eman nahi dugu hainbat ezaugarri partekatzen dituztela, eta horrexegatik sartzen ditugula talde berean; *gorri*, *eder*, *txukun*, *izugarri adjektiboak* direla adierazteak berez dakar lau hitz horiek zer edo zer, ezaugarri komun batzuk, dituztela, eta hori dela eta jotzen ditugula familia bereko kideztat; eta horrela jarrai genezake gainerako kategorietako kideekin.

Gramatika-kategorien zerrenda egiterakoan, agian gauzak nahasi xamarrak izan daitezke gero ikusiko denez, baina irakurlearen lasaitasunerako gramatika-kategoriatzat ohikoak behintzat jotzen ditugu, gehiegi erratzeko beldurrik gabe:

- (8) a. *izenak*: eskola, unibertsitate, ikasle, lagun, ama, euskara, askatasun, ate, ...
b. *aditzak*: jausi, etorri, joan, ikasi, pentsatu, ...
c. *adjektiboak*: handi, txiki, izugarri, bikain, on, txar, ...
d. *postposizioak*: -ra, -tik, -n, -ekin, -z, -entzat...
e. *adberbioak* (edo *aditzondoak*): ondo, gaizki, astiro, gaur, atzo...

Beharbada, irakurle, *postposizio* terminoa hemen erabili dugun zentzuan erabilia ikusteak harritzen zaitu gehien, ez baita hain arrunta geure artean deklinabide-atzizkiei *postposizio* esatea. Baina, ondo pentsatuta, hizkuntza guztiak deskribatzearen ikuspegitik, nahiko nabarmena da euskarazko deklinabide-atzizkiak direla aldamenean dauzkagun gaztelania, frantsesaren eta ingelesaren preposizioen oinordekoak:

- (9) a. {de, desde, en, para} la casa
b. {de, pour, en, par ...} la maison
c. etxe{-tik, -an, -rako}

Jakina, euskaraz deklinabide-atzizki horiek *post* dira, ez *pre*, eta gainera atzizki dira, gaztelaniazko eta frantsesezko preposizioak atzizki ez diren zentzu batean². Eta, oro har, badirudi erlazioak adierazteko helburua duen eta izenaren inguruko egiturei atxikitze joera duen kide gutxiko hitz talde hau *preposizioa* dela hizkuntza batzuetan eta *postposizioa* beste batzuetan; hurrenkera alde batera utzita kategoria honi eman ohi zaion izena, berriz, *adposizioa* da (zerbaiti atxikitze joera dutelako). Nazioarteko hizkuntzalaritzan, beraz, geure deklinabide-atzizkiak *postposizio* liriateke, eta geuk hala deituko diegu liburu honetan barrena; uste dut, gainera, deitura bera nahiko argia dela eta ez duela nahasmen handirik sortzen.

2.2. Gramatika-kategoriez jarduteko zailtasunak

Bosquek (1989 : 2. kapitulua) esan duen bezala, edozein gramatika eskolak aitortzen du gramatika-kategorien existentzia, baina gramatikariak ez dira beti bat etorri kategoriak zeintzuk diren zehazterako orduan. Kategoriak zehazteko dauden zailtasunen artean hiru hauek ematen ditu aipatutako Bosquek:

a. Gramatika-kategoriaren terminoa bera ez da beti argia, gramatika-kategorien banaketan zein irizpideren arabera egin behar ote den argi ez dagoen bezala. Euskaraz gaur egun *kategoriak* entzun bezain laster, *izenak*, *adjektiboak* eta halakoak datoz burura beharbada, baina beste hizkuntza batzuetako *speech part* edo *partes de la oración* terminoak ilunagoak dira. *Perpausaren osagaiak* terminoa erabiliz gero, ez legoke hain argi *izenak*, *adjektiboak* eta halakoez edo *subjektu* eta *predikatuez* hitz egiten dugun. Beraz, garrantzitsua da irizpidea zein den finkatzea, eta tradizio batzuetan finkatze hori ez da oso modu garbian egin.

b. Kategorien eta perpausen artean dauden tarteko osagaiak ez dira kontuan hartu historikoki, hizkuntzaren funtzionamenduan izugarritzko garrantzia duten arren. Ikus dezagun zer esan nahi dugun; har dezagun euskal perpaus bat:

² Nahiz eta preposizioak zentzu batean atzizkien antzekoak izan, ez baitira hitz autonomoak:

(i) * María vino hasta Madrid, la ciudad que Juan vive en.

Preposizioak dituzten hizkuntza guztiek, baina, ez dute horrela jokatzeko (ingelesa, esaterako).

(10) Errealak igandean Anoetan beste partida bat jokatuko du.

Hor azaltzen diren kategoria jakin bateko hitzak edota atzizkiak honako hauexek izan litezke:

(11) Erreal, a, k, dator, en, igande, an, Anoeta, n, beste, partida, bat, jokatu, ko, du

Hor izenak, determinatzaileak, postposizioak, zenbatzaileak, aditzak, eta abar agertzen zaizkigu, baina horietaz eta abarrez hitz egin aurretik, badirudi perpausean halako egitura bat, hierarkia bat, badagoela onartu beharrean gaudela. Demagun holako zerbait:

(12) Errealak [[Anoetan] datorren igandean [[beste p. bat] jokatuko du].]

Hau da, *bat* eta *partida* hitzek halako batasun bat osatzen dute; berdin esan liteke *datorren* eta *igandean* hitzez; *jokatu* aditzak, seguru asko, halako bloke bat osatzen du *Errealak* ez beste hitz guztiekin. Erlazio, harreman, eta unitate hauek guztiak aintzat hartu ezik, nekez eman daiteke hiztunak duen jakintzaren berri, nekez azaldu daiteke gramatikaren funtzionamendua. Eta historikoki kategoria gramatikalen azterketa ez da hitzen harremanen eta tarteko unitate hauen azterketaren eskutik etorri; esaterako, garai bateko eskola-ereduan, *izena* eta *subjektua* kontzeptuak errazegi nahasten ziren, subjektuak normalean izenak gabe izenaren inguruko egitura multzoak, izen-sintagmak alegia, direla ohartarazi gabe eta, larriago dena, izen-sintagmek subjektu ez diren funtzio asko betetzen dituztela eta subjektuak sarritan izenak edo izen-sintagmak ere ez direla erreparatu gabe.

c. Jokabide gramatikal desberdina duten hitzen aurrean, zelan jokatzen dugu? Esaterako, ondoko adibidean (harrotu xamarra, egia da) letra etzanez adierazita datozenen artean alde nabarmenak daude:

(13) Arazo *nire ustez* sakonagoak baditugu *gaur* Euskal Herrian eta *bihar arretaz* eta *sakonki* aztertu beharko genituzke *taldearen bileran*

Hemengo *nire ustez*, *gaur*, *bihar*, *arretaz*, *sakonki*, *taldeareen bileran* hitzek edo hitz taldeek nahikoa ezaugarri desberdinak dauzkate: *nire ustez* eta *taldeareen bileran* hitz taldeen osaera [izen-sintagma] + postposizioa edo deklinabide-atzizkia dugu; *arretaz* ere antzera aztertu like (*arreta* izena edo izen-sintagma + instrumentala); *gaur* eta *bihar* hitzetan ez dago izenik edo izen-sintagmarik, ez eta deklinabide-atzizkirik ere; berdin esan liteke *sakonki* hitzaz, baina hor *sakon* adjektiboa gehi *-ki* atzizkia ikusten dugu (deklinabide-atzizkia ez dena bestalde). Desberdintasun hauek gorabehera, Euskaltzaindiaren (1992) EGLA liburuaren arabera esaterako, adberbioak edo adberbio-sintagmak lirarteke azpimarratuta dauden guzti-guztiak. Galdera, orduan, hauxe da: zer esan nahi du *adberbio* hitzak testuinguru honetan, zein eduki dauka *adberbio* hitzak? Edo beste ildo batetik: zer irabazten dugu gramatika deskribatzaile edo azaltzaile baten ikuspegitik horko guztiak talde berean sartuta? Erantzuna ez da erraza: esan liteke guztiak adberbio direla *aditzari eragiten* dioten neurrian, edo *aditza modifikatzen* duten neurrian (eta horixe da gaztelaniaren eskola-tradizioan gehien entzuten zena!), izaeraz desberdinak diren arren. Baina hori ere ez da guztiz egia: *nire ustez* hitz taldeak edo sintagmak *sakon* adjektiboari eragiten dio, ez aditz bati. Adberbioek adjektiboari ere eragiten diotela esateak ez ditu gauzak konpontzen: zein da orduan adberbioaren izaera? Adberbio guztiek dute gaitasun hori? Edo [izen-sintagma + postposizioa] egitura dutenek soil-soilik? Eta berauek bakarrik baldin badute adjektiboari ere eragiteko gaitasun hori, zein arrazoi dago hauek eta gainerako adberbioak talde berean sartzeko?

Erantzuna zein den alde batera utzita, arazoa hor da: gramatika-kategoriak ez dira emandako sistema itxi bat, aztertzaileak bere deskribapenean, hiztunaren gaitasuna azaltzean justifikatuz, taxutuz eta aurkituz joan behar duen sistema baten atalak baino.

2.3. Ez ditzagun egitura (kategoria, islapena, sintagma) eta funtzioa nahasi

Aurreko azpitaleko bigarren eta hirugarren kezkak eta arazoak ikusita, iruditzen zait hasieratik bertatik komeni dela analisi gramatikalean giltzarri diren kontzeptu bi bereiztea: *egitura* eta *funtzioa*. Kontzeptuok edo kontzeptu-eremu biok azaltzeko, jo dezagun adibide praktiko batera. Har dezagun adibide ximple bat:

(14) Ikasle berri batzuk unibertsitateko liburudendara abiatu dira.

Galdetuz gero zein den perpausaren subjektua, nekez esango du inork *ikasle* denik, *ikasle berri batzuk* hitz-segida edo multzoa baizik. Eta segida horretan izenaren inguruan eraikitakoa den eta izena bera baino handiagoa den unitate baten aurrean gaude: gutxienez hiru elementu ditugu, Izena-Adjektiboa-Determinatzailea, eta horren barruan agian komeni da *ikasle berri* gehi determinatzailea daudela bereiztea. Nola? Esaterako: *ikasle berri eta ikasle zahar batzuk* bezalako hitz konbinazioak azaldu nahi baditugu, badirudi *batzuk* bakar horrek aldi berean besarkatzen dituela *ikasle berri* eta *ikasle zahar* multzoak, seinale *ikasle berri* eta *ikasle zahar* multzo biak nolabaiteko unitate-edo direla. Beraz:

(15) [*ikasle berri*] eta [*ikasle zahar*] *batzuk*

Hori horrela izanik juntadura baten kasuan, litekeena da berdin gertatzea juntadurarik ez dagoelarik ere. Esan nahi dugu (14)-ko *ikasle berri batzuk* horretan seguru asko halako barne egitura bat dagoela:

(16) [[*ikasle berri*] *batzuk*]

Bertan *ikasle* izenak eta *berri* adjektiboak unitate txiki bat osatzen dute, eta unitate txiki honek eta determinatzaileak izenaren inguruko unitaterik zabalena osatzen dute. *Ikasle berri* nolabaiteko osagai edo unitatea dela beste zerbaitek ere bermatzen du: *-tzat* (edo *-tako*) atzizkiak determinatzailea kanpoan uzten duen osagai bat behar duela ematen du:


(17) a. zuek guztiok *ikasle berrizat* hartu zaituztet
b. zuek guztiok [*ikasle berri*]-*tzat* hartu zaituztet

Beraz, (16)-ko egitura multzoan azaltzen zaizkigu izenetik beretik harantzago doazen izenaren multzoa (I' edo IM) eta izen-sintagma (IS) deitu ohi direnak:

(18) a. *ikasle* = Izena

- b. ikasle berri = IM, izenaren multzoa
 c. ikasle berri batzuk = IS, izenaren inguruko multzorik zabalena

Hots, arbola-diagrama baten bidez:



Kategoria jakin bateko elementuaren inguruan sortzen den egitura-multzoari islapena esan ohi zaio. Zentzu honetan, *ikasle berri* IM *ikasle* izenaren islapena litzateke, eta era berean *ikasle berri batzuk* ere *ikasle* izenaren (bigarren) islapena ere litzateke. Islapen gorenari, gehiago hedatzen ez denari, *sintagma* esan ohi zaio: beraz, *ikasle berri* ez litzateke izen-sintagma izango, baina bai ostera *ikasle berri batzuk*.

Ikus dezagun adibide gehiago:

- (19) a. [_{IS} Tarzanen neska aberatsaren bahiketa] gaitzetsi dute biltzarkide guztiek.
 b. [_{IS} Jon Alonsoren Saramagoren itzulpena] Bidebarrietan aurkeztuko dute.

Hor, *bahiketa* eta *itzulpen* hitzak izenak dira, eta horien inguruan eratzen edo eraikitzen den egitura-multzoari izen-sintagma esan ohi zaio; eta IS izatera heltzen ez den tarteko egitura-multzoari Izenaren Multzoa:

- (20) a. [_{IS} Tarzanen [_{IM} neska aberatsaren [_I bahiketa]] -[_{Det} a]]
 b. [_{IS} Jon Alonsoren [_{IM} Saramagoren [_I itzulpen]] -[_{Det} a]]

Gramatika-teoria gehienetan onartzen dira kategoriak eta kategorietan oinarritutako egitura-multzo hauek (Chomsky 1970z geroztik); orobat beste kategoria batzuez:

- (21) a. [nire lagunak] [_{AS} [asteburu askotan] [_{AM} lebatza [_A jaten]]] du
 b. [_{AdjS} oso [_{Adj-M} amaren [_{Adj} antzekoa]]]

Alegia, aditzaren inguruko egituran aditz hutsa, aditzak eta haren osagarriak osatzen duten tarteko islapena eta aditz sintagma osoa bereizten dira; beste horrenbeste adjektiboekin.

Kategoriak eta kategorietan oinarrituta sortzen diren egitura-multzo hauek (*X-aren multzoa* edo *X-Sintagma* deitzen ditugun hauek) *ez dira funtzioekin nahastu behar*, nahiz eta tradizio batzuetan (ikus Bosque 1989: 43) kategoriak funtzioen arabera definitu izan dituzten. Baina kontzeptu biak argi bereizi beharra nabarmena da kasu gehienetan. Esaterako:

- (22) a. Jonek *gezurra* esan du.
 b. Jonek *Euskal Herria Afrikan dagoela* esan du.

Hemen, letra etzaneko *gezurra* izen baten arabera taxututako egitura multzoa da, izen-sintagma bat *gezur* izena ardatz duena. Bigarren adibideko *Euskal Herria Afrikan dagoela* horretan, berriz, egitura multzo zabalagoa (eta luzeagoa!) sumatzen dugu: hor ez dugu izen baten inguruan taxututako egitura multzoa; besteak beste, izen-sintagma bat baino gehiago dago: *Euska Herria* eta *Afrika*. Eta, gainera, aditz jokatua eta mendeko perpausa sortzen duen *-ela* menderagailu edo konplementatzailea ikusten ditugu. Hor eztabaidagarria da, edo ez dago hain begi bistan behintzat, zein den egitura-multzoaren ardatza: aditza ote den tradizionalki esan izan den moduan, aditzaren inguruko flexioa ote den (jokatua izatea bera alegia), edo menderagailua bera den (finean, berak baldintzatzen baitu egitura osoaren banaketa). Eztabaidan sartu gabe, esan dezagun neutralki egitura osoa *perpausa* dela.

Gauzak horrela, hemen egitura multzo bi ditugu, elkarren artean antzik ez dutenak, baina funtzio berdina betetzen dutenak: *gezurra* eta *EH Afrikan dagoela* biak dira aditzaren osagarri. Nahiko ote da hori biak tankera bereko sintagmatzat jotzeko? Liburu honetan ezetz defendatuko dugu, gramatikariak argi eduki behar duela egitura mota biek ezaugarri bereziak dituztela, noiz edo behin funtzio berdina bete dezaketen arren.

Beraz, eta argudioaren amoreagatik adibide berarekin jarraituta, ikus dezagun nola IS eta perpausa bereizteak hainbat kontu argitzeko balio duen. Hara:

- a. bata eta bestea aukeratzen duten aditzak diferenteak izan daitezke:

- (23) a. Jonek {ordua, zer ordu den} {galdetu, adierazi, esan} du...
 b. Jonek {galdera bat, *non dagoen Afrika} egin du
 c. Jonek {*egia, lurra laua dela} uste du
 d. Jonek {ordua, *zer ordu den} hartu du

Alegia, adibideek erakusten duten moduan, zenbait aldiz izen-sintagma eta perpausa (antzeko interpretazioarekin) aditz berak hautatzen ditu; baina beste askotan ez da horrelakorik gertatzen. Aditz hautatzaileen jokabideak, beraz, indartu egiten du izen-sintagmak eta perpausak objektu diferenteak direlako ustea.

b. IS mugagabeak, singularrak eta pluralak diren bitartean, eta horrenbestez pluraleko komuntadura eduki dezaketen bitartean, perpausak ez dute holakorik erakusten:

- (24) a. Bushek gezur handia_I esan du (NOR IS_{sg} → du)
 b. Jonek gezur handiak esan *ditu* (NOR IS_{pl} → d-it-u)
 c. Bushek egia eta gezurra nahasten *ditu* (bi NOR IS_{sg} → d-it-u)
 (25) * Jonek berandu dela eta etxera doala esan *ditu* (bi perpaus → *d-it-u)

Datu honek ere egitura mota biak desberdintzera behartzen gaituela dirudi.

c. Juntaduran ohikoena da tankera bereko osagaiak koordinatzea; inoiz edo behin, tankera berekoak ez direnak ere koordinatzen daitezke semantikoki antzekoak direnean. Gure kasu praktikoan, zinezko zailtasuna dago izen-sintagma eta perpausa koordinatzeko:

- (26) a. Jonek *egia* eta *gezurra* nahasten ditu (IS + IS)
 b. ?? Jonek *egia* eta *lurra laua dela* esan du (IS + perpausa)
 c. ?? Haurrak *ordua* eta *komuna non dagoen* galdetu du (IS + perpausa)
 d. ?? Haurrak *komuna non dagoen* eta *ordua* galdetu du (perpausa + IS)

Berrito ere, datu honek izen-sintagmak eta perpausak kreatura bi direla esatera deitzen gaitu.

- b. adjektiboak: txukunago, txukunegi, txukunen
gorriago, gorriegi, gorrien
- c. izenak: ikaslea, ikaslek, ikasleak, ikaslerik...
mahaia, mahaik, mahaiak, mahairik

Datuok ikusita, esan liteke aditza, adjektiboa eta izena kategoria aldakorrek direla euskaraz; hots, gai direla askotariko morfemak hartu eta *aldatzeko*. Aldagaitzak, aitzitik, nekez aldatzen diren kategoriak ditugu. Hautagai ona postposizio kategorია dugu, bera ez baita larregi aldatzen:

- (29) postposizioak⁴: -n, -tik, -ra, -raino, -rantz, -ko, -en, -entzat/-endako, -gatik, -z, -ekin, -tzat/-tako

Alegia, euskarazko postposizioek ez dute aurrizki-tartizki-atzizki askorik onartzen; izan ere, badirudi *-ko* postposizioa bera dela gehienek onartzen duten aldaketa bakarra, postposizio konplexu batzuen osaerak argitzen duen moduan:

- (30) a. non + ko → nongo (alkatea)
b. etxera(-ntz, -ino) + ko → etxera(-ino, -anz)ko (bidea)
c. etxeko + ko → etxekoko⁵
d. etxearen + ko → * etxearenko
e. andrearentzat + ko → andrearentzako (oparia)
f. euskaragatik + ko → euskaragatiko (haserreak)
g. larruz + ko → larruzko (txamarra)
h. inorekin + ko → inorekiko (harremana)

Esan bezala, inoiz edo behin, *-rako* postposiziotzat hartzen da, *-zko* bera ere bai. Ikusitakoak ikusita, hartara, postposizio kategorია aldagaiztat joko genuke.

⁴ Ergatiboa, datiboa eta absolutiboa kasu-markatzat, eta ez postposiziotzat joko ditugu; horrexegatik geratu dira zerrendatik kanpo. **Ikus 5** kapitulua.

⁵ Mitxelenak artikulu batean *koko* hauek ezgramatikaltzat jotzen ditu, baina Euskaltzaindiak (1993) ontzat.

3.2. **Kategoria irekiak eta kategoria itxiak**

Kategoria irekiak ezin konta ahalako kide dutenei esaten zaie. Inork ez luke euskarazko izen guztiak zerrenda batean sartzeko burutapenik izango: ez dauka zentzurik, milaka eta milaka izen daude, eta berriak asmatu ditzakegu inolako arazorik gabe. Beste horrenbeste esan dezakegu euskal aditzez. *Kategoria itxiek*, berriz, elementu kopuru mugatua dute, eta elementuok zerrenda batean sartzeko modukoak dira. Adibide egokia postposizio kategoriak ematen digu: pentsatzen hasi, eta ez da lan nekeza euskarazko postposizioak zerrendatzea, goian (cf. 29) egin dugun moduan. Agian deklinabide-atzizkiren bat gehitu liteke, baina zerrendak ez luke hogeï-hogeita hamarreko kopurua inoiz gaindituko.

Zer esan orain arte ikusi ditugun kategoriez? Euskaraz adjektiboak kategoria irekia dirudi, aldeztatik ezin konta daitezkeen adjektibo kopurua dagoen neurrian, eta *-kor*, *-garri*, *-tsu* eta halakoen bidez berriak asmatu ditzakegun neurrian. Baina ez dirudi euskararen historian (eta aitzin historian) hau beti hala izan denik (cf. Lakarra 2005), eta ez dirudi hala denik hizkuntza guzti-guztietan, Dixonen aspaldiko lan batek (Dixon 1977) erakutsi zuen moduan: badira adjektiborik gabeko hizkuntzak, bai eta lau adjektibo, zortzi, edo hamar besterik ez dauzkatena ere. Hartara, adjektiboa kategoria irekia izatea ez da unibertuala.

Beste bi kategoria gutxienez aipatu ditugu: adberbioa eta konplementatzailea. Lehenaren kasuan, agian, komeni da adberbioaren kapitulura arte itzarotea. Baina irekitasunaren kontua moduzko adberbioetara mugatzen badugu, argi eta garbi egiten dugu topo egiaztapen batekin: ez dago aldeztatik esaterik zenbat moduzko adberbio izan daitezkeen, besteak beste ia edozein adjektibori (gaurko euskararen behinik behin) *-ki* gehitu ahal zaiolako (txukun → txukunki, ekonomiko → ekonomikoki, harrigarri → harrigarriki). Beraz, adberbioak adjektiboa bezain kategoria irekia dirudi. Konplementatzaile kategoria ere lehenago agertu zaigu eta mendeko perpausak sortzen dituzten kideek osatzen dutela esan dugu: *-ela*, *-en*, *-enik*, *-elako*, *-elarik*, *bait*-... euskarazko konplementatzaileak lirateke. Euskal konplementatzaileen zerrenda batean pentsatzeak zentzurik dauka kasu honetan? Zeure esku utziko dut, irakurle, galdera honi erantzutea.

Kategoria ireki eta itxien auzi honetan ez dugu ahaztu behar irizpidea ez dela kantitate hutsa: kualitatiboki ere, pisu desberdina dute kategoria irekiak eta itxiak. Euskal gramatikaren funtzionamendurako ez dauka garrantzi handirik izen hau edo

aditz hura galtzeak. Baina, zer gertatuko litzateke postposizio bat (jo dezagun *-ra*) desagertuko balitz? Edo nola *konpon* gintezke hiztunok halako batean talde itxitzat jo ohi den pertsona-izenordainen multzotik *gu* izenordaina ezabatuko balitz? Beraz, kategoria itxiak, laburrak izan arren, giltzarri dira gramatikaren funtzionamenduan, geure hizkuntz gaitasuna deskribatzeko egin behar dugun azalpen saioan.

3.3. Kategoria beteak eta kategoria hutsak

Bereizketa honek esanahiari begiratzen dio: kategoria *beteak* esanahi argia edo argi samarra dutenei esaten zaie, eta *hutsak* esanahi gramatikala edo erlaziozkoa dutenei esaten zaie. Sinplekeria dirudi bereizketa honek, baina nolabait honekin parekatu ahal dugu: kategoria beteak direnen esanahia hiztegiak argitu ohi digu, kategoria hutsak direnen esanahia gramatikak argitzen digun bitartean. Beste irudi bat erabili ahal dugu: errazago imajinatzen ditugu geure lagunak edo auzokoak *on/txar* adjektiboen esanahiaz edo *besaulki* eta *sofa* kontzeptuen arteko bereizketaz eztabaidatzen, *-ok* artikulu hurbilaren eta *hauek* erakusleen arteko bereizketaz edo *-elako* eta *bait-* konplementatzaileen aldeaz eztabaidatzen baino. Esan dezagun eztabaida-esparru diferenteak direla. Errazago da, halaber, halako izen, adjektibo edo aditz baten sinonimo edo antonimoaz hitz egitea halako mugatzaile baten sinonimo edo antonimoaz hitz egitea baino. Hiztunak uste edo sentitzen du errazagoa zaiola aditzen, izenen, adjektiboen esanahia harrapatu eta, behar delarik, azaltzea, determinatzaileen edo konplementatzaileen esanahia edo funtzionamendua zehaztea baino. Ba, hortxe kokatuko litzateke, sinplekerian jausiz, kategoria beteen eta hutsen arteko bereizketa. Nolanahi ere den, kategoria hustzat jotzen direnak (determinatzailea, konplementatzaileak eta, zentzu batean, postposizio batzuk) ez dira egiazki hutsak; kontua da euren esanahi erlazionala (zehaztutasuna, hurbiltasuna, deixia) ez dela hain erraz identifikatzen mundu errealeko kontzeptu eta ideiekin.

3.4. Kategoria nagusiak edo lexikoak eta txikiak edo funtzionalak

Hauxe entzuten da gehientsuen gramatika sortzailean; gauzak zertxobait sinplikatuz kategoria lexikotzat edo nagusitzat aldi berean irekiak eta beteak direnak jo ohi dira: izena, adjektiboa (irekia den hizkuntzetan behintzat), aditza, eta adberbioa alegia. Eta kategoria funtzionalen multzoan, berriz, itxiak eta hutsak direnak sartu ohi dira: determinatzaileak, konplementatzaileak.

Postposizioen kategoriak erronka interesgarria planteatzen du: inor gutxi jartzen du zalantzan preposizioek edo postposizioek talde itxia osatzen dutela hizkuntza ia guztietan, baina ez dago hain argi, ez behintzat zenbait hizkuntzalarirendako, ea kategoria betetzat jo behar diren. Pre/postposizioen izaera erlazionala ez dago zalantzan, baina egia da denek ez dutela pisu semantiko berdina: esaterako, euskaraz *-en* jabetza-genitiboak ez du beti jabetza adierazten:

- (31) a. sariaren banaketa (non *saria* banatutakoa den)
 b. Israelen mendekua (non *Israel* mendeku-egilea den)

Ez eta leku-genitiboa izenez ezaguna den *-ko* postposizioak beti lokatiboa ere:

- (32) hamar urteko ardoa, literaturako eskola

Alde horretatik, nahiko argi dago bi horien izaera funtzionala; baina *-gatik*, *-ekin*, edo *-ra* postposizioen kasuan nekezago da hor semantikoki hutsak diren postposizioen aurrean gaudela esatea; izan ere, irudipena⁶ dugu errazago identifika daitezkeela esanahi jakin batekin (esaterako: *-ekin* = konpainia, *-ra* = helburua, norabidea). Bestela esanda, pre/postposizioen taldearen barruan badirudi batzuk lexikoagoak edo kategoria lexikoetatik hurbilagoak direla eta beste batzuk funtzionalak (edo funtzionalagoak). Auzi honek, noski, liburu apal honen mugak gaintzen ditu, baina esan dezagun, pre/postposizioak autore batzuek kategoria lexikotzat jotzen badituzte ere, badirela arrazoi sendoak funtzionaltzat jotzeko⁷.

4. Kategoriak zedarriztatzeko irizpideak

Aurretik (cf. 7 zenbakian) esan dugu gramatika-kategoriak ezaugarri gramatikalak partekatzen dituzten hitz edo espresioak besterik ez direla, eta talde edo

⁶ Baina postposizio sasilexikoen esanahiarena egiazko *irudipena* da askotan: *ezkerretara* sintagmak kokapena (eta ez nahitaez helburua) adieraz dezake; *zurekin maitemindu* da perpausean *zurekin* horrek ez du “zure kopanian” esan nahi, eta abar.

⁷ Ikus 5. kapitulua. Baker (2003) lanak, hain zuzen ere, funtzionaltzat jotzen ditu, Jackendoff-ek (1977) gramatika sortzailean hasitako tradizioaren aurka. Emonds-ek berak, bere azken liburuan (Emonds 2000: 227), aitortzen du bere aurreko iritzia (i.e. Emonds 1985) nolabait aldatuaz, litekeena dela preposizio kategoria funtzionala izatea. Gakoa (beraren aztergaia den ingeles hizkuntzako) preposizioen kopuru handia da, baina horretan bat dator Baker-ekin ingelesezko preposizioen kopurua funtsean nahikoa murriztu daitezkeela, preposizio batzuk finean izen-preposizio hitz elkartuak direla.

kategoriak ez daudela alde zuzenetatik emanda, gramatika-azalpenaren osagai direla, gramatikariak aurkitzen joan behar duela. Eta, galdetu ahal diozu zeure buruari irakurle saiatu hori, nola jokutzen du gramatikariak gramatika-kategoriak ezartzerakoan? Nola erabakitzen da hitz bi talde berekoak diren edo talde banari dagozkion?

Eskuarki, hitz bat zein kategoriakoa den zehazteko irizpideak edo argudioak hiruzpalau motakoak izan daitezke: irizpide semantikoak, irizpide morfologikoak, eta irizpide sintaktikoak. Labur-labur azal dezagun bakoitza, gero banan-banan xehekiago aztertzeko. Irizpide semantikoaren arabera jokatzeko esan nahi du esanahian oinarritzen garela kategoriak ezartzerakoan. Irizpide morfologikoetan oinarritzeak forma hutsean oinarritzea esan nahi du, gutxi gorabera. Azkenik, irizpide sintaktikoak aintzat hartzen baditugu, hitzak bata bestearekin elkartzeko duten aukeraren arabera, euren banaketaren arabera, sailkatzen ari gara. Ikusiko dugunez, irizpide morfologikoak eta sintaktikoak dira fidagarrienak.

4.1. Irizpide semantikoak

Esanahian oinarritutakoak dira hauek, eta normalean ez dira oso fidagarritzat jotzen hitzen arteko kategoriak esanahiaren arabera ezartzea. Dakusagun zergatik.

Filosofia eskolastikotik dator gramatika-kategoriak izatearen moduei dagozkiela dioen pentsakera. Horren arabera, kategoria batzuen definizioa euren esanahiak baldintzatuko luke:

- (33) a. ekintzak ↔ aditzak (*irakurri, jakin, entzun...*);
 b. izakiak ↔ izenak (*liburu, ordenagailu, saltzaile...*);
 c. ezaugarriak ↔ adjektiboak (*on, txar, bikain, eskas...*);
 d. erlazioak ↔ post/preposizioak (*-n, -(r)ekin, -ko, -(r)entzat,...*)

Aurreratu dudan moduan, irizpide honi ez zaio kasu handiegirik egiten: bi arazoigatik gertatzen da. Batetik, kontradibideak ugari direlako:

- (34) a. *itzulpen, irakurketa, erosketa...*
 b. *jakin, izan, egon, maite, gustatu*
 c. *apaltasun, gaztetasun, ahulezia*
 d. (energia) *nuklearra, krisi ekonomikoa*

e. *ama, aita, seme, alaba...*

Hau da, badira ekintzak adierazten dituzten izenak (=34a) eta ekintzak ez diren aditzak (=34b); badira ezaugarriak adierazten dituzten izenak (34c) eta ezaugarriak adierazten ez duten adjektiboak (=34d); badira, azkenik, erlazioa adierazten duten izenak (34e). Beraz, lehen begiratuan behintzat, esanahia/kategoria lotura ez da inondik inora begi bistakoa.

Irizpide semantikoak errefusatzeko bigarren arrazoiak garrantzi handiagoa dauka: kategoria jakiteko, esanahia bigarren mailakoa dela. Hara:

(35) Dortxetzaile blirblirtsu batek ulukiro meutso blastogarriari kirtxo bat aztonatu zion

Lehen begiratu azkarrean, jatorrizko hitzun gehienok esango genuke *aztonatu* hitza aditza dela, *ulukiro* aditzondoa dela, *kirtxo*, *meutso* eta *dortxetzaile* izenak direla, eta *blirblirtsu* eta *blastogarri*, seguru asko, adjektiboak direla. Zergatik da hau? Ba, zalantzarik gabe, batetik hitz bakoitzak hartzen dituen edo berezkoak dituen atzizkiek eta bestetik hitz bakoitzak daukan banaketak (hots, zerekin taldekatzen edo batzen den) zerikusi handia dutelako eginkizun horretan. Labur-labur eta gain-gainetik azalduta:

- (36) a. dortxetzaile = izena, *-t(z)aile* atzizkiagatik eta *blirblirtsu* adjektiboarekin subjektua dirudiena (ergatibodun hitz-taldea) osatzen duelako;
 b. blirblirtsu = adjektiboa, *-tsu* atzizkiagatik eta izen baten ostean hitz-talde berean joateagatik
 c. ulukiro = aditzondoa, *-kiro* atzizkiagatik
 d. meutso = izena, *blastogarri* adjektiboarekin (datibodun) hitz-taldea osatzen duelako;
 e. blastogarri = adjektibo, *-garri* atzizkiagatik eta izen baten ostean hitz-talde berean joateagatik
 f. kirtxo = izena, *bat* hitzarekin elkartzeagatik
 g. azkonatu = aditza, *-tu* amaieragatik eta aditz laguntzailearekin batzegatik

Ikusten denez, beraz, hitz bakoitzaren morfologiak (berez dituen edo hartu ahal dituzten atzizkiak) eta joskerak (zerekin batzen den) erabakitzen dute hitz bat zein taldetan sartzen den.

Irizpide semantikoa fidagarria ez bada ere, azpimarratu behar da esanahiaren eta kategorien arteko harremana ez dela guztiz arbitrarioa ere. Izan ere, esan genezake badagoela joera bat esanahi edo kontzeptu batzuk kategorian jakin batean kokatzeko. Esaterako, objektu fisikoak izendatzeko hizkuntza guztietan erabiltzen dira izenak. Bosquek (1989) Dixon-en (1977) lan klasiko bat gogoan hartuta gogoratzen digun bezala, badira adjektiborik ez duten hizkuntzak, edo adjektibo gutxi batzuk besterik ez dauzkaten hizkuntzak. Baina hizkuntza batean adjektibo gutxi batzuk izatekotan adjektibo horiek neurriari buruzkoak (esaterako: *handi-txiki*, *luze-labur*), koloreari buruzkoak (*beltz-zuri*), adinari buruzkoak (*gazte/berri-zahar*), balioari buruzkoak (*on-txar*), izango dira normalean. Hartara, hizkuntza batek lau adjektibo baino ez badauzka, ez dira *bikain*, *jator*, *merke*, *larrosa* izango, *handi-txiki* eta *beltz-txuri* edo *berri-zahar* eta antzeko bikoteak baino.

Beste alor batzuetan, berriz, aldaketa nabarmenak daude hizkuntzarik hizkuntza: euskaraz, *mendi*, *aintzira*, *ibar*, *uharte* esaten diegu geografia-tipoei baina beste hizkuntza batzuetan *natura menditzen da*, *aintziratzen da*, *ibartzen da...* eta abar lirerateke euskarazko kideak (aditzak).

Beraz, esanahian edo kontzeptuetan oinarrituta kategorian gramatikalak bereizterik ez badago ere, ez da egia kontzeptuak eta kategorian gramatikalak elkarrekin zerikusirik ez duten mundu bi direnik; alde horretatik kategorian kontzeptual batzuk egokiagoak izan daitezke kategorian gramatikal jakin batzuen bidez emateko. Baina urrun gaude oraindik kategorian kontzeptual horiek egoki ulertzetik.

4.2. Irizpide morfologikoak

Irizpide morfologikoek hitzek hartzen dituzten formei, hizkiei (gehienetan atzizkiei) edo afixuei begiratzen diete, hitzak kategorian batekoak edo bestekoak direla erabakitzeko. Honako planteamendua egiten da irizpide morfologikoetan oinarrituz gero: antzeko hizkiak hartzen dituzten hitzak edo espresioak zerbaitengatik jokutzen dutela horrela; arrazoia *kategoria berekoak izatea* dela pentsatzen da.

Adibideak ikusi aurretik, funtsezkoa da hizki-mota biren artean bereiztea:

a. flexio-hizkiak: joskerarekin edo perpaus-osaketarekin zerikusia dutenak dira, eta eskuarki hitz baten aldaera sortzen dute, baina ez hitz berri bat. Esaterako, *ekarri* eta *ekarriko* ez lirateke zentzu hertsian hitz bi izango⁸, hitz beraren aldaera bi baino (geroaldia edo ekintza burutua adierazi nahi dugun); alde horretatik, *-ko* atzizkia flexio-hizkitzat (atzizkia kasu honetan) hartuko genuke. Era berean *ume* eta *umek* ez dira hitz bi, hitz bakarra baino (ergatiboa behar den edo ez): *-k* ergatiboa ere flexio-hizkitzat joko genuke. Eskematikoki:

- (37) a. *ekarri* eta *ekarriko* ez dira hitz bi, hitz beraren aldaera bi baino →
-ko atzizkia aditzaren flexio atzizkia litzateke
 b. *ume* eta *umek* ez dira hitz bi, hitz bakarra baino →
-k atzizkia flexio atzizkia litzateke

b. Eratorpen-hizkiak: hitz batetik beste hitz berri bat sortzen dute, ez aldaera soil bat. Eratorpen-hizkia aukeratu edo ez, hiztegiko aukera bat da, ez joskerari lotutakoa. Esaterako: *ekarri* eta *ekarle* hitz independentetzat jotzen dira, eta hiztegitik bertatik egin behar da aukera; honen arabera, *-le* atzizkia eratorpenezkotzat joko genuke. Era berean, *ume* eta *umekeria* ez dira hitz bera, bi baizik; *-keria*, orduan, eratorpen atzizkia da. Laburtuz:

- (38) a. *ekarri* eta *ekarle* hitz independentetzat jotzen dira →
-le atzizkia eratorpen-atzizkia da
 b. *ume* eta *umekeria* ez dira hitz bera, bi baizik; →
-keria eratorpen-atzizkia da

Azpiatal honen hasieran esan dugun bezala, irizpide morfologikoen garrantzia honexetan datza: batetik, talde edo kategoria bereko kideek eskuarki antzeko flexio-hizkiak hartuko dituztela:

- (40) a. *etorri/etorriko/etortzen, apurtu/apurtuko/apurtzen, bete/beteko/betetzen...*
 → *partizipioa/-ko/-tzen* formak dituztenak = aditzak lirateke
 b. *polit/politen/politago, itsusi/itsusien/itsusiago, handi, handien, handiago...*

⁸ Hiztegian, sarrera berean aurkituko ditugu, ez sarrera bitan.

→ *-en/- ago* atzizkiak hartzen dituztenak = adjektiboak

Bestetik, eratorpen-hizkiek ere sarritan kategoria jakin bat hartzen dute oinarritzat:

- (41) *-le* atzizkiak aditzak hartzen ditu oinarritzat:
- a. ikasle, irakasle, ikusle, entzule, edale...
 - b. *liburule, *telebistale, *irratiale, *ardole...

Beraz, irizpide morfologikoak lagundu egiten digu talde edo kategoria bereko hitzak identifikatzen. Hala ere, irizpide morfologikoek bere mugak ere badituzte; izan ere, hainbat kasutan kategoria bateko azpitalde batek baino ezin ditu teorian kategoria osoari dagozkion atzizkiak hartu. Esaterako, aditzek hartzen dute *-le* atzizkia, baina ez aditz guztiek: *-tu* partizipio amaieradun aditz askok ezin dute *-le* hartu :

- (42) a. antolatu, apurtu, kendu, ukale, ulertu... → *antolale, *apurle, *kenle, *ukale, *ulerle... (baina *eskatu* > *eskale*, *aitortu* > *aitorle*)

Beste batzuetan, kategoria bateko baino gehiagoko kideek hartzen dituzte atzizki berdinak:

- (43) a. egokiro, egokiroago, egokiroen
b. poliki, polikiago, polikien

Alegia, arestian aipatutako *-en* eta *-ago* atzizkiak (adjektiboek ez ezik) aditzondoek ere hartzen dituzte. Alde horretatik, beraz, irizpide morfologikoak garrantzitsuak dira erabat formalak diren neurrian, baina ezin dira beti erabakigarritzat hartu. Irakurleak kapitulu honen eranskinean (cf. 29 or.) aurkituko du kategoria-gramatikalen hurbilketa bat morfologia irizpideetan oinarrituta.

4.3. Irizpide (lexiko-)sintaktikoak

Irizpide sintaktikoek eskuarki bi alderdi hartzen dituzte kontuan: (a) hitzek zein banaketa duten (hots, zerekin elkartzeko edo taldekatzeko joera duten, zein testuingurutan agertzen diren); (b) hitzek hiztegi mailan nolako ezaugarriak dituzten

(ezaugarri hauek lotuta daude banaketarekin; izan ere, nolako ezaugarria hiztegiaren halako banaketa sintaxian). Esaterako, har ditzagun *ikusi* eta *andre* hitzak. Lehen hitza modu naturalean elkartzen edo taldekatzen da *dut*, *zenidan*, *nauzu* bezalako aditz laguntzaileekin; ezin dugu *andre* hitzaz gauza bera esan: **andre dut*, **andre zenidan*, **andre nauzu* txarrak dira. *Ikusi* hitzaz NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK aditza dela zehaztuko genuke hiztegi mailan, baina holakorik ez genuke egingo *andre* hitzaz. Eta, alderantziz, *andre* hitzak halako unitate bat osatzen du *lau*, *asko*, *bat*, *-ak* bezalako hitz edo atzizkiekin: *lau andre*, *andre asko*, *andre bat*, *andreak*, *ikusi* aditzarekin gertatzen ez dena. Hiztegi mailan ere, *andre* horretaz biziduna, zenbakarria, eta abar esango genuke; *izen* bizidun zenbakarria alegia. Informazio hau laburbilduta eman dezagun:

- (44) banaketa (zerekin osatzen duen unitate bat, zerekin elkartzen den)
- a. *ikusi* (aditza delako) laguntzaileekin elkartu ohi da: *ikusi dut*, *ikusi zenidan*...; baina ez determinatzaileekin **ikusi asko*, **lau ikusi*
 - b. *andre* (izena delako) determinatzaileekin elkartu ohi da: *andre asko*, *lau andre*; baina ez laguntzaileekin: **andre dut*, **andre zenidan*
- (45) hiztegi mailako informazioa (zer zehaztu behar den joskerari begira)
- a. *ikusi* aditzari buruz zehaztu beharra dago NOR, NOR-NORK den nolako laguntzailearekin joka daitekeen jakiteko
 - b. *andre* izenari buruz beste informazio mota bat zehaztu beharko da: zenbakarria den edo ez, biziduna den edo ez; besteak beste, horrek azaltzen du *andreamana* edo *lau andre* eta abar esan daitezkeen.

Irizpide sintaktikoetan oinarrituta (alegia testuinguru sintaktikoak definitu ondoren testuinguru berdinetan agertu ohi diren hitzak zein diren erkatuz eta hiztegi mailan zehaztu beharreko informazioa aintzat hartuz), normalean gramatikariek esaten dute banaketa bera duten eta hiztegiaren antzeko informazioa zehaztu behar duten hitzak kategoria berekotzat jotzen dituztela.

Irizpide sintaktikoak (edo lexiko-sintaktikoak, hiztegiko informazioa ere biltzen delako) nahikoa fidagarritzat jotzen dituzte gramatikariek, baina baina badauzka bere

eragozpen edo zailtasunak ere. Gaingiroki bada ere, berauek berrikusiko ditugu jarraian:

a. Hainbatek ohartarazten duten bezala, kontuz ibili behar dugu testuinguru sintaktikoak aukeratzeko; batzuetan faktore lexikoak edo semantikoak uzten dira kanpoan. Esaterako, egia bada ere adjektiboek mailakatzailerak onartu ohi dituztela, badira mailakatzeko horretatik kanpo gelditu daitezkeenak, *erlaziozko adjektibo* deiturikoak adibidez:

- (46) a. *oso* polita, *nahiko* itsusia, *zeharo* ederra...
- b. Idazle *finlandiar* bat gonbidatu dute Galeuzcara.
- c. * *oso* idazle *finlandiar* bat gonbidatu dute Galeuzcara.
- d. Garraio *publikoa* gehiago bultzatu behar luke udalak.
- e. * Garraio *nahiko publikoa* gehiago bultzatu behar luke udalak.

Beraz, goiko datuetan erne ibili behar dugu *finlandiar* hitza adjektibo ez delako ondorio okerra atera nahi ez badugu. Era berean, *Jonek _____-a edan du* testuinguruan, onargarri ez den hitz bat baliteke hutsuneari dagokion kategoriakoa izatea, baina arrazoi semantikoengatik suertatzea ezgramatikala: **Jonek liburua edan du* ez da batere ona, liburuak ez baitira edaten, baina hortik ez genuke *liburu* izena ez dela ondorioztatu behar.

b. Hutsuneak eta testuinguru sintaktikoak ez dira gauza bera, egitura hierarkia ere kontuan izan behar da. Esaterako:

- (47) a. Jon Donostian dago bakarrik
 1 2 3 4
- b. Jon ez dago bakarrik

Hemen ezin esan dezakegu *Donostian* eta *ez* posizio edo gune sintaktiko berean daudenik, nahiz eta itxura baten hutsune bera betetzen duten (biak dira bigarrenak). Hori ondo ikusten da *sekula* gehituta edota hurrenkera aldatuta:

- (48) a. * Jon Donostian dago bakarrik *sekula*

b. Jon ez dago bakarrik *sekula*



- (49) a. Jon dago Donostian bakarrik
 b. * Jon dago ez bakarrik

Hau da: *ez* hitzak lotura berezia dauka aditzarekin (*eztago* ahoskatzeak salatzen duenez), eta ezin da edozelan edo edozein hurrenkeratan agertu, eta gainera giltzarri da *sekula* bezalako adberbio bat ager dadin perpausean; *Donostian* horrek, aitzitik, ez dauka lotura esturik aditzarekin, ez da gauza *sekula* zilegiztatzeko. Hutsune bat betetzea (edo hurrenkera linealean halako postuan izatea) eta hierarkia estrukturala, beraz, ez dira gauza bera.

Era berean izen-sintagma hauetan:

- (50) a. Gernikako urriko astelehenak
 b. Gernikako udaletxeko leihoak

ezin dugu esan *urriko* eta *udaletxeko* testuinguru sintaktiko berean daudenik betetzen dutenik (betetzen duten hutsuneak berdintsua dirudien arren); bata (*urriko*) normalean ez da interpretatzen *Gernikako*-rekin batera osagai bat osatuko balute bezala (bitxi samarra da *noizko astelehenak?* galderari **Gernikako urrikoak* erantzutea); bestearen kasuan, berriz, *udaletxeko*-k bat egiten du *Gernikako*-rekin: *nongo leihoak?* galdetuz gero, erantzuna *Gernikako udaletxekoak!* izan liteke. Hortaz, arbola-diagrama batek ondo erakusten du lehen eta bigarren hitzaren arteko harremanak desberdinak direla kasu batean eta bestean:

- (51) a.
- 
- [Gernikako [urriko astelehenak]]
- b.
- 
- [Gernikako udaletxeko] leihoak]

c. Kategoriak edo egitura-motak eta funtzioak ez dira nahastu behar, 2.3 azpiatalean azaldu dugunaren haritik. Tradizio batzuetan, baina, kategoriak azaleko funtzioen arabera definitu izan dira⁹. Ikus dezagun beste adibide erraz bat:

(52) a. kontratu *laborala* b. *lan* kontratua

Lehen adibideko *laboral* adjektiboa dugu eta, gutxi gorabehera, kontratuaren xedearen berri ematen digu, lanerako dela alegia. Eskuineko adibidean, *lan* izenak funtzio berdina burutzen du, lana xede duen kontratua dela esatea alegia. Hitz biek betetzen dute funtzio berdina, kontratu mota adieraztea, baina ez dira horregatik kategoria berekoak eta ez dute gramatikalki modu berdintsuan jokatzeko: lehenean adjektiboa izenaren ondoren dator eta ez aurretik, eta beste adjektibo bat gehitzea onartzen du:

(53) a. **laboral* kontratua
b. kontratu *laboral berri* bat

Hots, *laboral* hitzak, adjektibo izateagatik, jokabide gramatikal jakin bat dauka, eta ez beste bat. Bigarrenean, *lan* izenak [izen + izen] hitz elkartu bat osatzen du *kontratu* izenarekin eta ez du ez adjektiboaren hurrenkera onartzen ez beste izen bat gehitzea onartzen:

(54) a. * kontratu *lana* (* 52-ren zentzu berean)
b. * *lan* ordezkapen kontratua

Hots, *lan* hitzak *kontratu* modifikatuko badu, hitz elkarketa bat osatu behar du, modifikatzen duen izenaren aurretik paratuta; baina ezin du eginkizun hori beste izen batekin batera partekatu: (54b)-ko *lan ordezkapen kontratua* izenak ezin du “aldi berean

⁹ Euskaltzaindiaren EGLA liburu da diogun honen adibidea. Adibide hauetan:

- (i) a. bizikleta *berri*-a
b. *Somarribaren* bizikleta
c. *mendiko* bizikleta

nabarmena da letra etzaneko osagaiek izena modifikatzen dutela, eta liburu horretan hirurei esaten zaie *adjektibo-sintagma*, nahiz izenondoek eta izenlagunek (funtsean eta gehienetan IS + postposizio egituradunak) elkarren artean, oro har, ezaugarri formal bereziak dauzkaten. **Honetaz ikus 3. kapitulua.** Interesgarriro, Euskaltzaindia (1999) lanean, ordea, “perpauis erlatiboak *funtzio adjektibala* duten perpauis menderatuak” direla argitzen da, perpauisaren egitura-mota eta funtzioa argi bereiziz.

lan kontratu eta ordezkapen kontratu den kontratu mota” adierazi. Kontuan hartu (52)-ko adibideen argira *lan* eta *laboral* biak (funtzio bera betetzeagatik) adjektibo direla erabakiko bagenu, nekez azaldu litezkeela batak eta besteak duten portaera gramatikal berezia. Baina, bata adjektiboa eta bestea izena dela esanez ezberdintasun gramatikalak agerian uzten dira eta nahikoa dugu esatea zenbait kasutan (izen + izen) hitz elkarketak eta *izen + adjektibo* multzoek edo osagaiak funtzio berdinak bete ahal dituztela.

Irakurleak aise igar lezakeenez, irizpide sintaktikoak (morfologikoekin batera) dira eskuarki fidagarrienak eta erabilienak. Irakurleak bigarren eranskinean (cf. 32 or.) aurki dezake kategoria bakoitzaren ezaugarri sintaktikorik behinenean lehen hurbilketa bat.

5. Gramatika kategoriak euskaraz

Irizpide formalak (bereziki morfologikoak, eta lexiko-sintaktikoak) erabiliz kategoria ezberdinez hitz egitera heldu dira gramatikariak. Hona hemen sailkapen tipiko bat:

(55) **Kategoria nagusiak edo lexikoak:**

- a. *izenak*: ikasle, askatasun, orrialde, ur, ...
- b. *aditzak*: iritsi, etorri, argitaratu, egon, hitz egin, ...
- c. *adjektiboak*: ekonomiko, maitagarri, zimel, triste, gogor, ...
- e. *adberbioak*: gogorki, garbiro, ederto... ;eta *gaur/bihar, harrika* eta abar ere.

Ohartarazi behar da postposizioak (deklinabide atzizkiak, funtsean) kategoria itxia diren arren, autore batzuek kategoria lexikoen artean aipatu ohi dituztela.

(56) **Kategoria txikiak edo funtzionalak:**

- a. *determinatzaileak*: -a, -ak, hau, hauek, bat, bi, hiru, anitz, asko, gutxi, hainbeste, ... (hots: mugatzaileak eta zenbatzaileak)
- b. *inflexioa* (edo *laguntzaile* kategoria): aditz laguntzaileak, aditzaren aspektu (= *-tu(ko)*, *-t(z)en*), komunztadura eta denbora morfemak (*n-*, *h-*, *d-*, *g-*, *z-*, *l-*, *ke*, *-en...*)
- c. *mailakatzaileak*: -ago, -egi, -en

d. *postposizioak*: -ra, -tik, -ekin, -engatik, -ko, -(r)en, ...

e. *konplementatzaileak*: -(e)n, -(e)la, bait-, ba-, -(e)larik, -(e)nean...

f. *juntagailuak*: eta, edo, ala, baina, ...

Hor sumatu bezala egiten da nolabaiteko osagarritasuna kategoría lexiko eta funtzionale batzuen artean: *determinatzaile* kategoría izenarekin joan ohi da; *inflexio* kategoría aditzarekin; *adjektibo* kategoriarekin graduatzaileak joan ohi dira, nahiz eta hauek kategoría berezizat jotzerakoan autore guztiak bat etorri ez.

Amaitzeko, aitortu behar dut hemen eta liburu honetan aurrerantzean hartuko dudan gramatika-kategorien ikuspegiak ez duela bat egiten Euskaltzaindiak EGLA liburuan hartutakoarekin. Horrexegatik, irakurlearen gidari, hona argibide izan nahi duen taula bat dakart:

(57)

EGLA liburuan	Liburu honetan
izenak	izenak
<i>determinatzaileak</i>	1. determinatzaileak: mugatzaileak eta erakusleak 2. zenbatzaileak
deklinabide-atzizkiak	postposizioak
<i>adjektiboak</i> 1. izenondoak 2. izenlagunak	1. adjektiboak 2. [izen-sintagma] + postposizioak
<i>adberbioak</i> 1. adizlagunak 2. aditzondoak	1. [izen-sintagma] + postposizioak 2. adberbioak (edo aditzondoak)

Ongietorria izan zaitez, irakurle, euskarazko gramatika-kategorien lehen hurbilketa egiten duen gidaliburu honetara. Liburu hau bidelagun baliagarria izan dakizula.

Lehen eranskina: lehen begiratu morfologia irizpideei

1. Aditz hizkiak

- aspektu [-t(z)en, -i/-tu (+ -ko)] atzizkiak hartzeko gaitasuna dute aditzek;
 - pertsona/ denbora/ modua hizkiak hartzeko gaitasuna dute;
 - -t(z)aile/-le, -garri... eratorpen atzizkiak hartzeko gaitasuna dute:
- (1) ekar/ ekarri/ ekartzen/ ekarriko; etorri/ etortzen/ etorriko; ikus/ ikusi/ ikusten/ ikusiko, ...
 - (2) nator, dator, datorkio, daukat, zauzkat, lekarke, nindekarten¹⁰, zeramakion, ...
 - (3) itzultzaile, ikasle, ikusgarri, ...

2. Izenaren atzizkiak

- artikuluak, partitiboa eta, oro har, deklinabideko atzizkiak hartzeko gaitasuna dute;
- (4) liburua, katua, poza, katutxorik, katutxoak, alfertasunik...
 - (5) Jonekin, buruz, burutik, ...¹¹

► Oharrak:

- *Deklinabide atzizki* horien azpian, askotan *determinatzailea* + *postposizioa* bera ezkututzen dira. Esaterako:

- | | | | | |
|-----|-------------------|---|----------------|------------------|
| (6) | a. lagunarekin | → | <i>arekin</i> | = a (sg) + ekin |
| | b. lagunekin | → | <i>ekin</i> | = ak (pl) + ekin |
| | c. lagun birekin | → | <i>rekin</i> | = ø + ekin |
| | [d. lagun honekin | → | <i>honekin</i> | = hau + ekin] |

¹⁰ Hala ere, aditz guztiek ez dute adizki trinkorik sortzen.

¹¹ Tipigarriak hartzeko gaitasuna ere aipatu ohi da:

- (i) Itziartxo, liburuskua, katutxo...

Baina irizpide hau ez da lar fidagarria tipigarri bera kategorian askotan antzematen delako.

Hots: *lagunarekin* = laguna + *rekin*; *lagunekin* = lagunak + *ekin*; *lagun birekin* = lagun bi + (*r*)*ekin*; *lagun honekin* = lagun hau + *ekin*. Zentzu honetan, deklinabide-atzizki horiek izenari ez, determinatzaileari lotzen zaizkio (edo zehatzago esanda, izen-sintagma osoari).

- *Determinatzaileek ere* deklinabide-atzizkiak hartzen badituzte, nola dakigu *-a/-ak* edo *hau/hauek* izenak ez direla?

➔ Numero (singular/plural) informazioa ematen dute, talde itxia dira... (baina hauek ez dira arrazoi morfologikoak)

- *asko, gutxi, bi, lau* zenbatzaileen kasuan zaila da morfologiaren bidez izenetatik bereiztea.

3. Adjektiboaren atzizkiak

- Konparaziozko atzizkiak hartzeko gaitasuna dute: *-ago, -egi, -en...*;

- izenek hartzen dituztenak hartzeko gaitasuna dute:

(7) a. ederrago, ederren, ederregi... b. edertxo, ederra, ederretik...

- zenbait tipigarri (*-txo, -ska, -xka, -xko ...*) ere adjektiboen ezaugarritzat hartu ohi dira:

(8) berdetxo, ilunska, gorrixka, horixka, gaztexko...

- Edozelan ere izenak eta adjektiboak ez dira gehiegi bereizten morfologiaren aldetik.

4. Postposizioen atzizkiak

- *-ko* atzizkia hartzeko gaitasuna dute normalean;

- Ez dituzte I/A/Adj kategoriek hartu ohi dituzten atzizkiak;

- Postposizioak eurak atzizkiak izaten dira:

(9) a. etxeango/etxeako, etxerako, etxetiko, etxeagatiko, etxearekiko...

5. Aditzondo edo adberbio atzizkiak

- Morfologikoki *-ro*, *-to*, *-ki* edo *-kiro* atzizkien bidez sorturikoak dira aditzondoak;
- Konporaziozko atzizkiak hartzeko gaitasuna dute:

- (10) a. gaizki, gaizkiago, gaizkien, ...
b. txarto, txartoago, txartoen, ...
c. luzaro, luzaroago, luzaroen, ...

Bigarren eranskina: lehen begiratua irizpide lexiko-sintaktikoei

1. Aditzak

- aditzak *jokatu* egiten dira; hots, laguntzailearekin elkartzen dira:

(1) ekar nezake, etorri zinen, jakin dun, ninderamaten...

- aditzetan aditz-mota zehaztu behar da hiztegia: NOR, NOR-NORK, ...

(2) *ekarri*: NOR-NORK, NOR-NORI-NORK; *etorri*: NOR, NOR-NORI...

- aditzek mendeko perpaus jokatugabea sortzeko gaitasuna eduki ohi dute:

(3) {erratu, erori, kantatu, ikusi...} arren, Anak aurrera aurrera jarraitu zuen

2. Izenak

- Izenek halako mendekotasuna dute determinatzaileekin ISa osatzerakoan:

(4) a. [____ asko] ikusi dut
 b. [____ -ak] ikusi ditut

Hor, tipikoki IS osatzeko falta den hutsunea izenen batek (*jende, lagun, diru, egur, ur...*) beteko luke; determinatzailearik ezean, izenak eskuarki ezin du ISa osatu:

c. * [jende, lagun] ikusi dut

Egia da, hala ere, hau ere aurkitzen dugula:

(5) handia erosi dut

Hau ere arrunta da, baina normalean *zerbait* handia dela ulertuko dugu; hartara, *handi* ez genuke izentzat joko.

- Hainbat kasutan, ezinbestekoa da izenaren hiztegi-ezaugarri batzuk aintzat hartu eta zehaztea:

- (6) a. *ur batzuk *baina* a'. liburu batzuk
 b. *urarengana *baina* b'. umearengana

Ezaugarriok ([± zenbakarri], [± bizidun]), izenaren ingurukoak izaten dira; izenak identifikatzeko balio dute beraz.

3. Adjektiboak

- Tipikoki, adjektiboek mailakatzaileak hartu ohi dituzte:

- (7) Filma [{oso, nahiko, guztiz, biziki... } interesgarria] da

- ISaren barruan, izenaren eta determinatzailearen artean kokatzen dira:

- (8) a. emakume _____ -ak (interesgarri, aberats, on, zital...)
 b. afari _____ bat (txar, aspergarri, eskas...)

4. Postposizioak

- Ez dira beregain ibiltzen (eta atzizkiak izaten dira, gainera).

- Sintaktikoki, normalean IS oso bati atxikitzen zaizkio:

- (9) a. hiru emakumerekin = [hiru emakume]_{IS} + ekin
 b. emakume argalarekin = [emakume argala]_{IS} + ekin
 c. emakume garaiekin = [emakume garaiak]_{IS} + ekin

- Ezaugarri hori betetzen ez duten atzizkiak ez dira *postposizio* kategoriakoak izango:

- (10) a. txarto, zorrozki, luzaro
 b. *ideia txarto, *denbora luzaro, *modu zorrozki
 [c. ideia txarrekin, denbora luzean, modu zorrotzean]

5. Aditzondo (edo adberbioak)

- Zaila da oso aditzondoan jokaera sintaktikoa deskribatzea, kategoria nabarra delako (leku, modu aditzondoak daude, perpaus mailako aditzondoak, denborazkoak...)
- Moduzko aditzondoek mailakatzailerak hartzen dituzte adjektiboen moduan, baina berauek ez bezala ezin dute izenaren eta determinatzailearen artean agertu:

- (11) a. Jonek [{oso, nahiko, guztiz...} txarto] jokatu zuen
b. * jokaldi txarto bat (*baina* “jokaldi txar bat”, ondo)